



## **LEHEN HEZKUNTZAKO 3. zikloa: IPUIN SARITUA**

### **FUTBOL PARTIDA. Nerea Mansoa Nuñez**

Bazen behin hiru txerritxo, bat txikia, beste bat ertaina eta azkena handia. Txerritxo horiei gustatzen zitzairen etxeak, parkeak...egitea. Egun batean futbol zelai bat egitea bururatu zitzairen. Lehenengo txerritxoak lastozko zelaia egin zuen, bigarren txerritxoak egur hauskaitzezko zelaia eta azken txerritxoak adreiluzko zelaia egin zuen. Txerritxoek oso ongi pasa zuten zelaia egiten, futbol partida bat egitea erabaki zuten. Futbol partidaren erdian sinestezinesko lurrikara gertatu zen. Lurrikara hori atari magiko bat ireki zelako gertatu zen. Atari magikotik Txano Gorritxo ateratu zen otsoaren aurretik ihesean. Adreiluzko zelaian sartu zen eta hiru txerritxoen otsoa zetorrela ikusi zuen. Txano Gorritxok hiru txerritxoak ikusi zituen eta Txano Gorritxoren otsoak esan zuen:

— Zer egiten dut hemen? Begira, futbol zelai bat! Zer egiten du futbol zelai honek hemen?—Eta Txano Gorritxok erantzun zion:

—Ah! Beste otsoa dator!— Txerritxo guztiak eta Txano Gorritxo oso beldurtuak zeuden, bi otsoek denak jan nahi zituztelako. Hiru Txerritxoek ideia bat izan zuten: futbol partida bat egitea, otsoak txerritxoen kontra. Baina arazo bat zegoen: txerritxoek ez zekiten jolasten, hau da, ez zekiten golak sartzen. Orduan lagun batzuk deitzera joan ziren: Zazpi Antxumeak. Bitartean, otsoak galdetzen ari ziren:

—Nora joan dira hiru txerritxoak? Eta Txano Gorritxo ere joan da?

Txano Gorritxok erantzun zien beldurturik:

—Ez naiz joan, hemen nago. Hiru Txerritxoak haien zazpi lagunei deitzera joan dira. Futbol partida bat egin nahi dute. Zuek haien kontra baina, txerritxoek ez dakitenez jolasten, lagunei deitzera joan dira.

—Zergatik egin behar dugu partida bat beraiekin?— galdetu zuen otso batek. Eta Txano Gorritxok erantzun zion beldurrez:

—Ez dakit. Txerritxoei galdetu.

Minutu batzuk itxoin eta gero, HiruTxerritxoak, Zazpi Antxumeak eta Zazpi Antxumeen ama etorri ziren. Zazpi Antxumeen amak esan zien bere haurrei:

—Espero dut berriro aurrekoa ez gertatzea, gogoratzen duzue zer gertatu zen aurrekoan?—eta Zazpi Antxumeek erantzun zuten:

—Lasai ama, ez da aurrekoan bezala gertatuko, eta gertatzen bada, ostiko bat emango diegu, ezta? Ja, ja, ja!

—Zer gertatzen da hor? Txano Gorritxok futbol partida bat egin behar dugula esan dit. Eta irabazten duena zer?— Oihukatu zuen otso batek.

—Taldea galtzaileak hiru mesede egin beharko dizkio irabazten duen taldeari. Galtzen duen taldeak ez baditu hiru mesedeak egiten, oso urrutira joan beharko da eta ez da inoiz itzuliko— Erantzun zion txerritxo batek.

—Horretarako jolastuko dut? Ba ni banoa, hor konpon Maria Anton— Esan zuen otso batek. Segidan, txerritxo batek erantzun zion:

—Baaina hiru mesede benetakoak esaten dut. Edozein mesede: betirako joan, zerbait erosi, tontoarena egin zure amaren aurrean...Edozein gauza!



—Uste dut jokatu dudala, ea zer gertatzen den!— Animatu zen otsoa.

—Benga, zuek gure kontra, dibertigarria izango da!— Animatu zen beste otsoa. Eta denak jolasten hasi ziren, baina, Txano Gorritxo begira geratu zen. Txano Gorritxok galdetu zion txerritxo bati:

—Zuekin jokatu dezaket?

—Orain ez, geroago!— Oihukatu zion txerritxo batek. Geroago, partida 0-0 zegoen, eta Txano Gorritxok galdetu zion txerritxo bati:

—Orain, zuekin jokatu dezaket?

—Esan dizut ezetz! Ez duzu ulertzen, ala?— Partida ia bukatuta, emaitza 0-0 zen oraindik. Hiru Txerritxoak eta Zazpi Antxumeak oso nekatuak zeuden eta ia ezin zuten arnasarik hartu. Orduan, antxume batek esan zion Txano Gorritxori:

—Jolastu zuk, mesedez, guk ezin dugu gehiago!

Txano Gorritxo zelaian sartu zen. Minutu bat gelditzen zen. Otso batek esan zion besteari:

—Gol bat sartuko dugu eta irabaziko dugu, ja,ja,ja!

Txano Gorritxo oso urduri eta beldurtuta zegoen, galduko zutela pentsatzen zuelako. 30 segundo geratzen ziren eta Txano Gorritxok baloia hartu, beste atezaindegira joan zen, 5 segundo geratzen ziren, ostikada bat eman zuen eta denak oihuka hasi ziren:

—Gol! Sinestezina da!— Hiru Txerritxoak harriturik gelditu ziren baita Zazpi Antxumeak ere.

Partida bukatu eta gero, Txano Gorritxok, Zazpi Antxumeez eta Hiru Txerritxoek hiru mesedeak eskatu zituzten: bat Txano Gorritxorentzat, beste bat Antxumeentzat eta azken mesedea Txerritxoentzat. Txerritxoek txokolatezko izozkiak eskatu zituzten, Antxumeez otsoek ordaindutako afari batera joatea eskatu zuten eta Txano Gorritxok otsoak betirako joateko eta inoiz ez itzultzeko eskatu zuen. Otsoek hiru mesedeak egin zituzten eta guztiak oso pozik eta lasai geratu ziren.

Gainera, Txano Gorritxori esker, gauza bat ikasi zuten: neskei ere gustatu al zaizkiela mutilen gauzak, edo mutilei ere nesken gauzak gustatu al zaizkiela; jokoak ez daudela eginak bakarrik mutilentzat edo ez neskentzat, baizik eta denentzat .